Larrea z/g 48340 Zornotza
94 673 29 50 • zornotza@ikastola.eus
www.zornotzaikastola.eus

## EGUEN ZURI

Hurrengo asteko ostegunean, **OTSAILAREN 24an,** eguen zuri eguna ospatuko dugu ikastolan.

**GOIZEAN:** Auzotik abestera irtengo gara.

- **HH 3-4-5 urtekoak** eta **LH 1, 2 eta 3. mailakoak** kalera irtengo gara abestera. Ikasle guztiek baserritarrez jantzita etortzeko aukera dute.
  Egun horretan, L.H.3-A taldekoak ez dira igeritokira joango, beraz, goizean ikastolara bertaratu beharko dira.

**ARRATSALDEAN:** Txitxi-burruntzia egingo dugu.

- **HH 3, 4 eta 5 URTEKOEK eta LH 1 ETA 2 MAILAKOEK** jantokian ospatuko dute. UMEEK EZ DUTE EZER EKARRI BEHAR *(EZ MAKILARIK, EZ TXORIZORIK, EZ OGIRIK)*
- **LH 3, 4, 5 eta 6. MAILAKO IKASLEEK** kalean ospatuko dute 14:40etatik aurrera (euririk egiten ez badu). Bakoitzak bere ogia, txorizoa eta makila ekarri beharko ditu. EURIA EGITEN BADU, EZ DUGU OSPATUKO.

## INAUTERIAK

Ostiralean, **OTSAILAREN 25ean, INAUTERIAK** ospatuko ditugu **IKASTOLAN**.
Hemen doakizue egun horretako egitaraua.

· **HAURTZAINDEGIA (0-2 urte):** hezitzaileek bertan egingo dituzte mozorroak.

- **0 eta 1 URTE :** Familia bakoitzak nahi duen kolorea aukeratu baina ahal dela kamiseta eta praka/gona kolore berdinekoa izatea eskertuko genizueke.
- **2 URTE:** beltzez edo urdinez etortzea eskertuko genizueke, kamiseta eta gona/praka kolore berdinekoak izanik, ahal bada.

Larrea z/g 48340 Zornotza
94 673 29 50 • zornotza@ikastola.eus
www.zornotzaikastola.eus

**HH 3, 4 eta 5 URTEKO IKASLEAK ETA LH. 1 eta 2. MAILAKO IKASLEAK**: mozorroak libreak dira. Goizetik bakoitzak nahi duen mozorroa ekar dezakete. Ostiral horretan (otsailaren 25ean), HH eta LH 1. eta 2. mailako ikasleek ez dute motxilarik ekarri behar.

**LH 3.etik 6. MAILARARTEKO IKASLEAK:** Mozorroak libreak dira eta nahi izanez gero, goizetik mozorrotuta etorri ahal izango dira. Goizean mozorrotu ezean, arratsaldeko ekitaldiaren aurretik mozorroak janzteko aukera izango dute. Mozorrotuta etorri arren, goizeko saioak bere horretan mantenduko dira.

Egun horretan, L.H.1B, 2B eta LH 4.mailako ikasleak ez dira igeritokira joango, beraz, goizean ikastolara bertaratu beharko dira eta ez dute igeritokirako arroparik ekarri beharko.

**DBHko IKASLEAK:** Eguerdiko 14:00etatik aurrera mozorroak janzteko denbora izango dute.

## EGITARAU BEREZIA

Ohiko arratsaldeko ikuskizuna eskaintzea ezinezkoa zaigun arren, ez gara ospakizunik gabe gelditukо, ez horixe. Ikuskizun desberdinez beteriko ekitaldi berezia antolatu dugu eta familiek zuzenean ZOOM bidez gurekin bat egiteko aukera izango duzue. Ekitaldian parte hartu ahal izateko esteka hurrengo asteko buletinean bidaliko zaizue. Nolanahi ere, zuzenean jarraitzeko aukerarik izan ezean, zuon ikastolako kontuekin Drive karpetetan izango dituzue ikuskizunak eskuragarri.

Ekitaldian sortutako material bisualari dagokionez, informazio klausula ikusteko egin klik HEMEN.

Hori horrela, honakoa da ostiralean izango dugun **egitaraua:**

- **IKUSKIZUNAK**
    - 10:00: HH 1.zikloa (0, 1 eta 2 urte)

Larrea z/g 48340 Zornotza
94 673 29 50 • zornotza@ikastola.eus
www.zornotzaikastola.eus

- 11:00: HH 2.zikloa (3, 4 eta 5 urte)
- 11:45: LH 1 eta LH 2
- 14:30: DBH
- 15:00: LH 3 eta LH 4
- 15:30: LH 5 eta LH 6

- **MOZORRO LEHIAKETA**
  - 16:00: Mozorro lehiaketako sari banaketa.

    Beti bezala, LH 3.mailatik aurrera mozorroen lehiaketa egongo da, Ikasleen Euskara Batzordeak antolatuta. Hauek dira lehiaketako txapeldunak aukeratzeko irizpideak, besteak beste:

    1. Originaltasuna.
    2. Etxean egindako jantzia izatea.
    3. Berrerabilitako materialekin eginda egotea.

    Ikasleen artean bi kategoria egongo dira: LHn bakarkakoa eta taldekakoa.

    Aurten, tamalez, **ez da GURASOEN ARTEKO MOZORRO LEHIAKETArik egongo**.

- **TXOKOLATADA**

  Ikasleek txokolatea eta bizkotxoak espazio desberdinetan jango dituzte (geletan, jantokian, frontoian, erdiko patioan...) segurtasun neurri guztiak errespetatuz.

**OHARRAK:**

**1.-** Ostiral arratsaldean **EZ** da eskolaz kanpoko ekintzarik egongo

**2.**- Ostiralean, LH 1B, 2B eta 4. mailako ikasleak ez dira igerilekura joango.

3.- Dakizuen bezala, 21/22 ikasturteko egutegiaren arabera **otsailaren 28a eta martxoaren 1a eta 2a JAIEGUNAK izango da** 3 urtetik gorako ikasleentzat. **Haurtzaindegia zabalik egongo da.**